

IRAKUZALETASUNA BULTZATZEKO **PROGRAMA - 2015**

AURKIBIDEA

- 1.- SARRERA**
- 2.- HELBURUAK**
- 3.- AZPIEGITASMOAK:**
 - 3.1.- Gaztezulo aldizkariaren harpidetza**
 - 3.2.- Udal liburutegiarekin elkalanerako programa berezia**
 - 3.3.- Euskarazoka kanpaina**
- 4.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK**
- 5.- XEDE TALDEA ETA ADIERAZLEAK**
- 6.- KRONOGRAMA**
- 7.- GASTUEN ZERRENDA**

ERANSKINAK:

- 1. ERANSKINA: Gaztezulo aldizkariaren prop (2015)**
- 2. ERANSKINA: “Irakurri, gozatu eta oparitu” egitasmoa**
- 3. ERANSKINA: Euskarazokari buruzko informazioa**

1.-SARRERA

Badira urte batzuk egitasmo puntualak garatu izan direna Euskara Zerbitzutik irakurzaletasuna bultzatzeko, bakoitza esparru batean eta modu soltean.

Beraz, duela urte batzuk aipatu ekintzei jarraipena eman eta egitasmo komun bat eratzeko ordu zela otu zitzaigun. Irakurzaletasuna bultzatu asmoz, honako azpiegitasmoak biltzen ditugu:

- Gaztezulo aldizkariaren harpidetza, DBHko 4. mailako ikasleei sei hilabetetan doan eskaintzeko.
- Udal liburutegiarekin elkarlanean garatuko den programa berezia (haurrei begirako dinamizazio saioak).
- Euskarazoka kanpaina.

2.-HELBURUAK

Indarrean daukagun 2014-2017 eperako Euskara Sustatzeko Ekintza Plana oinarri, 2015eko Kudeaketa Plana moldatu da eta bertan aintzat hartu hurrengo helburuak:

- **Helburu estrategikoa: 1.- Euskararen ondorengoetaratzea.**

2. Irakaskuntza

2.1. Euskararen jakite-maila eta erabilera hobetzeko prestakuntza sendotu eta metodologia eta baliabide berriak garatzea

2.1.8. Ikastetxe bakoitzean hizkuntzaren irakaskuntza eta erabilera uztartuko dituen jarduera-plangintza egitea, hau da, hizkuntza-proiektua egitea

- 2.1.8.2.- Ikastetxeetan euskararen normalkuntza planak garatzeko diru laguntzak eskaini eta planak koordinatu

2.4. Euskararen erabilera soziala hezkuntza esparruan aztertu eta bultzatzea

2.4.4. Irakaskuntzarako ez ezik eskolako ekintza guztietarako euskara harremanhizkuntza gisa bultzatzea (bestelako jardueren egitarau eta programa zehatzen bitartez)

- 2.4.4.5.- Irakurzaletasuna bultzatu DBHko ikasleen artean (Gaztezuloren harpidetza)

- Helburu estrategikoa: 3.- Euskararen elikadura.

8. Liburugintza

8.1. Irakurzaletasuna bultzatzea (Toki erakundeak)

8.1.4. Herri liburutegietan euskarazko liburuen presentzia bermatzea

- 8.1.4.1.- Ahalegin berezia egin udal liburutegian euskarazko fondoa gehitzeko (liburuak, ikus-entzunezkoak, musika, filmak), Liburutegiko teknikariarekin helburua landuz

- Helburu estrategikoa: 3.- Euskararen erabilera

6.4. Enpresen jardunean hizkuntza-irizpideak ezartzeko pausoak ematea

6.4.2. Kanpoko irudian, idatzizko zein ahozko komunikazioan eta adierazpen publikoetan euskararen

- 6.4.2.1.- Azoka berezietan euskararen presentzia bermatu

Helburu estrategikoa: Zehar lerroetakoak

14. Sentsibilizazioa eta motibazioa

14.8. Liburugintza (Toki erakundeak)

- 14.8.1.3.- Liburuaren eguna ospatu (udal liburutegia)

- 14.8.1.4.- Hileroko azken barikuetako ekintza burutu liburutegian, irakurzaletasuna biltzatu asmoz

3.- AZPIEGITASMOAK

3.1.- Gaztezulo aldizkariaren harpidetza

Gaztezulotik duela lau urte jasotako proposamenari eutsi eta urtero burutzen dugu. Aurrekontuaren partiden arabera, ikasle gehiago edo gutxiagorako ematen du harpidetzak. Aurtengoan, 2014an harpidetza doanik eskainiko zaie sei hilabetez DBHko bigarren zikloko ikasleei.

I. eranskinean dago 2014rako proposamena.

3.2.- Udal liburutegiarekin elkarlanerako programa berezia

- IPUIN-KONTALARIAK hileroko azken barikuetan Udal Liburutegiak hurrei begira egiten duena (7 bat ekitaldia: 2.000 euro).
- IRAKURRI, GOZATU ETA OPARITU egitasmoa, adin guztietako herritarrei zuzendua. Euskaltzaleen Topagunea erakundearekin batera garatuko den ekimen berezia dugu, Liburutegia eta Euskara Zerbitzuarekin elkarlanean. Helburua:
 - Irakurzaletasuna sustatu
 - Liburutegi publikoaren erabilera bultzatzea
 - Euskarazko literatura ezagutaraztea
 - Euskal liburugintza indartzea
 - Herritarren kultur kontsumoan euskararen presentzia indartzea.

Informazio gehiagorako 2. Eranskinera jo, arren.

3.3.- Euskarazoka kanpaina

Euskara Zerbitzuak, bere kabuz edota beste hainbat eragilerekin batera euskaraz ekoiztutako argitalpenak zein osterantzean eskuratutakoak salgai jartzen dira prezio sinbolikoan maiatzetik abendura arte ospatzen diren azoka berezietan, hileroko lehenengo zapatuetan Merkatu Plazan.

Horretarako, Urdaibai Rugby Elkartearekin elkarlanean ekiten diogu eta euren begiraleak dira saltokia prestatzen dutenak. Horrekin lotuta, aldi

bakoitzean abian dagoen kanpainaren berri emateko ere aprobetxatzen da (udan kontsumitzaileenganakoa, urrian euskara ikasteko diru laguntzena, abenduan euskararen egunekoa,...).

4.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK

Eragileak:

- Euskara Zerbitzua: koordinazio lana, azpiegitasmo bakoitzerako hizkuntza irizpideak proposatzea, jarraipena egitea.
- Gaztezulo aldizkaria: behin harpidetza eginez gero, irakaskuntza zentroekin harremanetan jartzea, Euskara Zerbitzuak zubi lana egin ondoren. Azpiegitasmo honen jarraipena egitea.
- Urdaibai Rugby Eskola: “Euskarazoka” egitasmoaren garapena, Euskara Zerbitzuak emandako argitalpenak eta materiala oinarri.
- Udal liburutegia, bertako dinamizazioa burutzeko (hileroko ekitaldiak eta Irakurri gozatu eta oparitu” programa koordinatzea).
- Euskaltzaileen Topagunea: Udal liburutegiarekin eta Euskara Zerbitzuarekin elkarlanean “Irakurri, gozatu eta oparitu” egitasmoa garatzea.

Giza eta diru baliabideak:

- Euskara Zerbitzuko HNT1. Diru baliabideak ere Euskara Sailak jarriko ditu.
- Gaztezulo aldizkariko teknikaria, zentroekin sustapen lana.
- Eskoletako normalkuntzarako arduradunak: Gaztezulo aldizkariaren sustapenerako eta gutuna banatzeko.

- Urdaibai Rugby Eskolako begiraleak (lau begirale, Euskarazokarako).
- Udal liburutegiko arduraduna.
- Topaguneko dinamizatzaila.

4.- XEDE TALDEA ETA ADIERAZLEAK

Xede taldea:

Argitu behar, egitasmo orokorraren honen xede taldea herritar guztiak izatea nahi badugu ere, azpiegitasmo bakoitzeko xede taldea bereiztu behar dugula:

- Gaztezulo aldizkaria: DBHko bigarren zikloko ikasleak (360).
- “Irakurri, gozatu eta oparitu” egitamsoa: Gernika-Lumon dauden 0-17 urte bitarteko biztanleak 2.646 izanik, liburutegiko bazkide dira 1.206 (%46) eta hauek osazen dute azpiegitasmo honen xede taldea.
- Euskarazoka azpiegitasmoa: hilabete bakoitzeko lehenengo zapatuetako azoketara hurbiltzen den biztanleria dugu xede taldea, adin guztietakoa. Gutxi gora-behera, 700 bat pertsona izaten dira batz bestea.

Adierazleak:

Egitasmo honi lotutako adierazleak:

- Gaztezulo aldizkariaren azpiegitasmoan, doaneko kanpainaren ondoren, harpidetza edo interneteko lotura eskatzen dutenen kopurua.
- Udal liburutegiko egitasmo bereziaren azpiegitasmoan, bazkide direnetatik, ekintzetan parte hartuko dutenen kopurua.
- Euskarazoka azpiegitasmoa: salgai eta eskuragarri jarritako argitalpenetatik zenbat saldu eta banatu diren.

5.-GARAPENA - KRONOGRAMA

Jarduerak	Urt	Ots	Martx	Apir	Maia	Ekain.	Uztail	Abuz	Irail	Urria	Aza	Abend
Gaztezulo (harpidetza)												
Ipuin kontalaria												
Irakurri, gozatu,.....												
EUSKARAZOKA												

6.- AURREKONTUA

Kontzeptuak	Kopuruak
Gaztezulo aldizkaria (harpidetza sei hilabeterako)	1.650
Liburutegiaren egitasmoa (ekitaldiak: ipuin kontalariak,...)	2.000
Irakurri, gozatu eta oparitu ekimena	3.500
Euskarazoka kanpaina (monitoreak)	600
Gastuak guztira	7.750

Gernika-Lumon, 2015eko urtarrilean.

Naiara Urberuaga
Kultura, Hezkuntza eta Euskara zinegotzia

Bittor Zarrabeitia
Hizkuntza Normalizatzailea

1. ERANSKINA

Gaztezulo aldizkariaren proposamena (2015)

2. ERANSKINA

**“Irakurri, gozatu eta oparitu” egitasmoa
(TOPAGUNEA)**

3. ERANSKINA

EUSKARAZOKA AZPIEGITASMOA (2014ko datuak)